



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Ostirala  
2009-05-15

VII URTEA 1.702 ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## Gazumeko parke eolikoaren aurka azaldu dira hainbat eragile

**TOLOSALDEA** Eskualdeko zazpi udal eta hiru elkartek adierazi dute proiektu horren aurkako jarrera

**PROTESTA** Elkarretaratzera deitu dute etzi, Zelatunen; «parkearen etekinak ez du txikizioa justifikatzen», diote 4



'Gazume salba dezagun' lelopean hainbat eragilek egin zuten herenegun agerraldia, tartean eskualdekoak. E.E.



Erakusketan ikusgai dagoen margoetako bat. HITZA

### Amuarrain eta Zarboen Txapelketa etzi, Oriako uretan 3

### Udaberriko eta Musika Eskolako ikasleak ariko dira etzi, Leidor aretoan 3

### Juani Alkorta zizurkildarraren lanak daude ikusgai, Jubilatuen tabernan

**ALEGIA** Paisaiak eta erretratoak dira nagusi erakusketan; maitza osoan egongo dira bertan 5



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat 3 sarrera pare ditu

2 sarrera pare  
20:00etako emanaldirako

Oreka TX

Maiatzak 16 • Larunbata  
Lekunberriko frontoian

sarrera pare bat  
21:00etako emanaldirako



sarrerak eskuratzeko deitu GAUR 17:00ak arte: 943-65 56 95 harpidedun kodea eskura duzula jasotako deli guztien artean zozketa egingo dugu. Saridunen Izenak, BIHAR, Maiatzaren 15eko egunkarian.

Antolatzaileak: Larraunaldeko Euskara Zerbitzua eta Mitxausenea Kultur Etxea  
Babesleak: Berria eta Hitza



TXOKOA hitza

**Z** **Zurea da hitza**

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailaz, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

**Ibiurko erabilerak**

Irakurri nuen **Galtzaundi** aldizkarian (298.alea) Ibiurko erabilerak altematibo batzuri buruzko apunte txiki bat; egia da, bertako urak erabiliz aisiarako leku edo komplejo turistiko bat sortzea ez dela berria, presa betetakoan geratuko den ur putzua aprobetxatuz.

**Galtzaundi**-ko artikulorearen izenburuak dioenari buruz «Ibiurko ur biziak: geldituta baina ez ahaztua», zera esango det: Ni ere ez nengoela ahaztuta orain dela denbora puska bat (urte bat baino gehiago) kontu hori nola atera zen Orendaingo alkatearen partetik. Egia esan nik espero nuen bidezko diren arrozoiengatik, ahaztutako kontu bat izango zela baino ez dela horrela dirudi.

Dena dela, uste dut, Baliarrain, Orendain eta Ikaztegiako alkateak, TAKEkin (Tolosako Arraun Kluba) proiektuak egin aurretik, Ibiurren parte duten eta bertatik edan behar duten bazkide guztiei galdetu beharko liekela hauek. Zer egin nahi duten eta zehazki zer suposatzen duen pentsatzen ari diren proiektu horrek. Nik garbi daukat; edan behar dudana urak ahal den manipulazio txikiena izatea nahi dut.

Erantzun errezari aurre hartuz, baita ere esango det arrazoi higieniko edo sanitarioetan gehiegi sartu gabe depuradora konbentzionalak ez dutela dena garbitzen eta bestalde, zikintzen ez dena garbitu beharrik ez dagoela.

Nahiko adierazgarri izan beharko luke nola inguruko urtegiak, kontsumorako urak dituztenak, Añarbe, Endar, Urkulu, Ibai-Eder, Aixiola, Barrendiola, Arriola edo Lareok ez dituzten udako lekuak bertan antolatu; eta badira aipatutako horietan inguru ederrak...

Beraz, urtegiak regatatarako edo bertan hankak sartuta turismoa bultzatzeko idearen aurka nagoela garbi adierazi nahi nuke. Alderantziz, aipatutako aktibitateak baxestua izan beharko luke leku honetarako. Artikutza (Añarbe) antzera.



Abaltzisketan jauntzea egin zuten gazteak. HITZA

Duela igande batzuk, TOLOSALDEKO HITZAN, azaltzen den idea (Ibiurko proiektua bera baino askoz zaharragoa dena) presagain puzgarria zelakoa, lantzeko moduko ideia iruditzen zait. Eragin gutxiago inguruari, inguratzeko baliabide hobeak eta garrantzituena: edateko urak kutsatzeko arriskurik gabea.

**Jexux.****Abaltzisketan jauntzeak**

Zorionak bostoi! Lierni, Lorea, Leire, Gaizka, Xabier bost neska-mutilen jauntzea izan zen maiatzaren 3an Abaltzisketan. Familia eta lagun artean inguraturik ospatu zuten egun zoragarri hura. Zorionak, beraz.

**Abaltzisketatik.****Autoa lapurtu didate**

Tolosako Iurre auzoan zegoen aparkaturik, Saizar gozotegiaren ondoan, ezinduen gunean, nire autoa, eta lapurtu egin didate. Granate koloreko Peugeot 206 bat da, 0602BMP matrikuladuna. Norbaitek bere berririk balu eskertuko nioke deitza (943 65 51 30 / 680 54 88 19) edo bestela Tolosako Erantzaintzari edo Udaltzaingoari horren berri ematea. Eskerririk asko!

**Joxe Mari Olariaga.****Berastegikoak Donostiara**

Berastegiko dantzariak larunbatean Donostian ariko direla entzun det eta asko poztu naiz. Berastegiko San Juan dantzak ederrak dira eta poztu naiz hainbeste urte eta gero Donostian ere ikusteko aukerarik izango dutelako. Berastegitarak Donostiara joatera animatzen ditut, dantzarietako animoak ematera.

**Itsaso.****«Sahara sahararrek nahi dutena izango da»**

**TOLOSA** ● Mendebaldeko Sahararen egoeraz eta irtenbide politikoaz hitz egiteko aukera izan zen herenegun Kultur Etxean GAIN taldeko Txente Rekondoren eskutik. Tolosaldea Sahararekin elkarrekin antolatutako Maiatza Borrokan egitarauaren baitan kokatzen zen hitzaldia. Hala, egitarauaren baitan, gaur bertso

afaria izango da Ibarroko Sendi Ekintza elkartearen, 21:00etan hasita. Amaia Agirre, Beñat Iguaran, Oihana Iguaran eta Adur Gorostidi bertsoari hartuko dute parte. 654 40 72 00 zenbakian eman ahal da izena, eta 15 euro ordaindu beharko dira. Elkartekoek herritar guztiak animatzen dituzte parte hartzera. i.r.

**K** **Kirol jarduera****Gaur, ostirala****Areto futbola**

■ Usabalgo goiko kantxan, 20:30ean, 2. mailan, Laskorain-Denak taberna.

■ Usabalgo beheko kantxan, 20:30ean, emakumezkoak: Laskorain-Axular.

**Pilota**

■ Udaberri Lau T'erdiko Txapelketa: Ibarra 19:00etan, Alegian 20:00etan eta Armasan 21:15ean.

**Bihar, larunbata****Eskubaloia**

■ Usabalgo goiko kantxan, 09:15, infantilak: Tolosa-Arrate.

**Areto futbola**

■ Usabalgo beheko kantxan, 18:00: Tolargi-Denak Gazte taberna.

**Futbola**

■ Berazubi futbol zelaian, 18:30: Tolosa CF-Aretxabaleta.

■ Usabalgo futbol zelaian, 09:30, infantilak: Tolosa CF-Antiguoko.

■ Usabalgo futbol zelaian, 11:00etan, emakumezkoen kadeteen F-8: Tolosa CF-Allerru.

**Tolosa Kup 09**

■ Uzturpe pilotalekuan, 15:30etik 20:30era sei partida.

**Pilota**

■ Udaberri Lau T'erdiko Txapelketa: Tolosako Beotibarren 10:00etan eta Bidaniana 16:00etan.

■ Beotibarren, eskuz 2. mailako banakakoa: Olazabal-Beroiz.

**Saskibaloia**

■ Usabalgo goiko kantxan, juniorrak, 16:00etan: Take Orbela-Ordizia.

■ Usabalgo goiko kantxan, senior mailan, 18:00etan: Bide Bide Ibizar Arrasate.

■ Usabalgo beheko kantxan, 16:00etan: junior mutilak Take-BKE eta kadete neskak Take-Bera-Bera Zurriola.

**Etzi, igandea****Eskubaloia**

■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00etan, senior emakumeak: Aloña Mendi-Leizaran.

**Futbola**

■ Usabalgo futbol zelaian, kadeteen eskual kopa, 12:00etan: Tolosa CF-Arenas.

■ Villabonako Arratzain zelaian, 12:00etan: Billabona-Sanse, kadeteak.

**Tolosa Kup 09**

■ Uzturpe, 15:30etik 20:30era.

**Arratza**

■ Orián, 09:00etan hasita, Gipuzkoako Amuarrain txapelketa.

**H** **Hilberria****MARIA DOLORES ODRIUZOLA IRIARTE**

Azto hil zen, 89 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartuta.

- Goian bego -

Zuzendari espirituala: Aitor Emazabel. Senarra: Enrique Zurutza Altolaguirre. Seme-alabak: M<sup>o</sup> Carmen eta Celestino Astiz, Arantxa, Ifraki, M<sup>o</sup> Loli, Kike eta Bea Ugarte, Jose M<sup>o</sup> eta Rosa Sudupe, Isabel eta Jose M<sup>o</sup> Marquinez. Bilobak: Xabier, Mikel, Ander, Ontintza, Maialen, Nekane, Itziar, Jone, David, Lorea, Ane, Olatz, Ifraki eta Martin. Ahizpa: Juana M<sup>o</sup> Gorostegi (Iekaima). Anaia politikoa: Felipe Arratibel eta gainerako ahaideek. Haren animaren alde otoiitz bat eskatzen dizuzete eta arren etorri zailteztela GAUR OSTIRALA, 19:30EAN, SOREASU parroki elizan, GORPUA BERTAN dela egingo den hiletara.

Aldez aurretik, mila esker.

**AZPEITIA**  
2009ko  
maiatzaren 15a

Helbidea: Enparan 38, 2. Hila-bidea Azpeitiako Carmona bellatokia ingongoa da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

# Udaberriko eta Musika Eskolako ikasleak, elkarrekin etzi, Leidorren

**Kultura** » 15. Musikariaren baitan, dantza eta musika uztartzea erabaki dute lehendabiziko emanaldian; igandean da, 12:00etan.

## ERREDAKZIOA

Tolosako dantza eskola eta musika eskola esanguratsuenek bat egingo dute etzi. Izan ere, Tolosako Musika Eskola Musikaria Astea ospatzen hasiko da egun horretan, eta lehen ekitaldirako Udaberriko ikasleak gonbidatu ditu, parte hartzera. Emanaldi berezi hau Leidor antzokian izango da, 12:00etan. Sarrera dohainik izango da, baina sartu ahal izateko, gonbidapenak eskuratu beharko dira egunean bertan, emanaldia hasi aurretik, antzokiko leihatilan.

Ikuskizunean, Udaberri dantza taldeko haurrek, Musika Eskolako ikasleek zuzenean joko dituzten doinu berriak dantzatu dituzte. Gainera, hauek, bereziki egin horretarako prestatu dituzten dantzak izango dira. Orain arte ez dute horrelako emanaldirik eskaini, eta dantza taldekoen esanetan, «ilusio handiz prestatzen gabiltza emana-



Udaberri dantza taldeko ikasleak eta Udal Musika Eskolakoak elkarrekin ikusteko aukera izango da etzi. N. U. / HITZA

naldia, guztion artean». Gaineratu dutenez, «lana ez da batere erraza, izan ere, emanaldia burutuko dutenak adinez oso gazteak dira eta entsegu egunak desberdinak izanik, guztiak elkartzera zaila da»

## 15. Musikaria hemen da

Urtero data hauetan antolatzen du Udal Musika Eskolak, Musikaria izeneko ekimena. Hainbat egune-

tan, musika ardatz dutela, ekitaldi ezberdinak gauzatzen dituzte. Oraingo honetan, aipatu bezala, etzi izango da lehen emanaldia, eta datorren ostegunera arte, egunero izango dira jarduera ezberdinak.

Musikariako bigarren ekitaldia astelehenean izango da. 19:00etan, Musika Eskolan bertan, Donostiako Musikalis abesbatza entzuteko aukera izango da.

## Emanaldiz betetako hilabetea

Ikasturte amaiera mugitua ari dira izaten Udaberri dantza taldekoak. Apirilaren amaieran Huescan izan ziren eta Gurea de Gallego herrian ikuskizuna eskaini zuten. Tolosakoekin batera, beste herri batzuetako lau talde aritu ziren dantzan. Elkartruke antzeko honi esker, uztailean 4an Tolosan izango dira Gurea de Gallegoko dantzariak.

## » 15. MUSIKARIA

### Maiatzak 17, igandea

■ **Udaberri dantza taldea eta Musika Eskolako ikasleen emanaldia.** 12:00etan izango da saioa, Leidor antzokian. Ondorengo egitaraua prestatu dute: Udaberrikoek bakarrik, *Altsasu* eta *Sorgin dantza* interpretatuko dituzte. Ondoren, *Bandakoe*k, *Hau dek hau* eta *Gure herria* abestiak joko dituzte. Denek batera, ondoren beste obra herriko hauek taularatuko dituzte: *Mari Andresen korontza*, *Axun kla kla*, *Txulalaj*, *Polka Flandria*, *Dantza (pausoka)*, *Fandangoa* eta *Ariñ-ariña*.

### Maiatzak 18, astelehena

■ **Donostiako Musikalis abesbatza.** Udal Musika Eskolan eskainiko dute emanaldia 19:00etan.

Bestalde, joan den asteburuan, hilaren 9an, dantza taldeko haurrek Gasteizko Dantzari Txiki egunean parte hartu zuten. Datoren hilabeteetan, Anoeta, Ibarra eta Hendaian ere ospatuko dute egun hau, eta haietan ere izango dira Udaberrikoak.

Joan den larunbatean ere, taldeko helduenek emanaldia izan zuten. Portugaleten izan ziren, Dantza Topaketetan. Jaialdi honetan, dantza talde bakoitzak bere herriko dantzak aurkezten ditu, eta Udaberrikoek, Bedaioiko inguruetxo dantzatu zuten.

# Amuarrain eta zarboen arrantza txapelketa jokoan

**Arrantza** » Gipuzkoako 35. Amuarrainen Arrantza Txapelketa, eta Zarboen 12.a jokatuko dira igandean, Oriako uretan.

## ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Amuarrain eta zarboen arrantza txapelketa jokatuko dira etzi goizean. Sei eta hamalau urte bitarteko gaztetxoek hartuko dute parte, eta Oriako ibaiko uretan egingo da. Gaur amaitzen da izena emateko epea. Hau, Usabal kiroldegian egin daiteke, 19:00etatik 21:00etara bitartean. Beste modu zenbakira deituta: 630 52 95 31.

Hiru mailatan banatuta ariko dira lehia parte-hartzaileak: benjaminak (6-9 urte bitartekoak), alebinak (10-11 urte bitartekoak) eta infantilak (12-14 urtekoak). Bestalde, modalitate ezberdinetan egingo dute arrantza: zizarearekin, jaurtiketan arinean, arratoi isatsarekin.

Tolosako Arrantzaile elkarteak antolatutako 35. txapelketa da amuarrainen kasuan, eta 12.a, zarboenean. 08:00-09:00ak bitartean elkartuko dira Zerkausion parte-hartzaileak, eta 09:00etan ekingo diote norgehiagokari. Denera hiru ordu iraungo du saioak, eta honen ostean, hamaiketako egingo dute, eta oparien banaketa.

Parte-hartzaileek egin beharriko lana ondorengo izango da. Amuarrainen kasuan, lehiak iraungo duen hiru orduetan, gehienez hiru harrapatu ahal izango dituzte. Zarboen kasuan, berriz, gehienez bost. Muga hori ezartzen du Lurralde Federakuntzak. Irabazlea nor den erabakitzeko garaian, epaimahaiak neurtuko duen gauzetako bat da, arrain kopuru hori arrantzatzeko igaro duten denbora. Hau da, zenbat eta azkarrago harrapatu, irabazteko aukera gehiago. Ondoren, amuarrain eta zarbo horien pisua eta luzera neurtuko dituzte, eta horren arabera, ebatziko dute zein den garai-lea.



Oria ibaian ariko dira amuarrainak eta zarboak arrantzatzen, igande goiz guztian. REBEKA CALVO

**arantzazu**

bila dabilzan pertsonentzat - santutegia, kultura eta natura

ezagutu Arantzazu gaur  
uste duzuna baino gehiago da

[www.arantzazu.org](http://www.arantzazu.org)

# Gazumeko parke eolikoaren aurka daude hainbat eragile

**Ingurumena** » Errezilen egin zuten prentsaurrekoa eta proiektuaren aurkako elkarretaratzea deitu dute Zelatunen etzirako.

## ERREDAKZIOA

Gazumeko parke eolikoaren proiektuaren aurka azaldu ziren hainbat eragile Errezilen egindako prentsaurrekoan. Tartean izan ziren eskualdeko Aduna, Albiztur, Bidegoian, Larraul, Zizurkil, Ikaztegieta eta Anoetako udalak, eta Erniozaleak elkarte, Asteasuko Sagain mendi taldea eta Ibarrako Eneko Haritza kultur taldea. Parke eolikoaren proiektuarekin «Gazume eta bere inguru naturala industrializatzeo egitasmoa proposatzen da, eta agiri hau sinatzen dugunok proiektu horrekiko gure desadostasuna eta erabateko gaitzespena adierazi nahi dugu», azaldu dute eragileek.

Proiektuaren arabera, Gazumeko mendi-lerroan 100 metro baino luzeagoak izango ziren 15 aerosorgailu jartzea proposatzen da, horretarako 7 metro zabaleko pista berriak eta 7,7 km-ko luzera izango duen tentsio altuko linea berria eraiki beharko dira.

Ez dute zalantzan jartzen energia berriztagarriak «ingurumenaren ikuspegitik interes handikoa» bezala aurkezten direnean. «Baina energia-iturri berriak bilatzen hasi aurretik, gure energia-kontsumoa aztertu eta gutxitzeko ahaleginak egin behar direlakoan gaude», azaldu zuten prentsaurre-



Eragileek Errezilen egin zuten prentsaurrekoa. E. EZBIZA

koa eman zutenek. Energia-iturri berriak bilatzeak ez duela «arazoa konpontzen lagunduko energia-kontsumoa etengabe handitzen dihardugun bitartean» diote. «Errealitate honetan energia berriztagarriak ez dira orain arteko energia-iturrien ordezkokoak. Beraz, zalantzakoa da horien eraginkortasuna, eta zer esanik ez, jasanezina horien ekoizpenean eragiten den inpaktua», gaineratu dute.

Eragile hauek azaldu zutenek, energia berriztagarriekin eragiten dituzten kalteez «ezer gutxi esaten zaigu. Parke eolikoek paisaia eragiten duten inpaktuaz gain, urrutetik entzuten den zarata sortzen dute, eta eraikuntza-fasean landalurrearen galera handiak eta fauna zein flora kalte neurtezinak eragiten dituzte». Kalte horien aurrean, proiektuaren beharrak ez luke elarri «zalantzarik eragin behar» diote, «baina Gazumeko parke eolikoaren proiektuan bertan esaten zaigun aerosorgailu hauek urteko 100

egun baino gehiagotan geldirik egotea espero dela. Gure ustez, etekin horrek ez du justifikatzen tamaina horretako txikizkia, batez ere energia-kontsumoa murrizteko politika eraginkorrik egiten ez den bitartean».

Proiektua gauzatzera «Errezilgo eta inguruko herritarrenaganako axolagabekeria» ere salatzen dute. Gazumeko parke eoliko EAEko energia eolikoan Zatikako Lurraldeko Planaren II. taldean kokatzen da, eta planak berak esaten du II. taldeko zentralik ez dela eraikiko I. taldekoak egin arte edo II. taldeko horiek egin ezean helburu energetikoak lortzeko arazo objektiboak bermatzen ez badira. «Lehen ez da bete, eta bigarrenaren berri ez dugu, ez zaigulari azalpenik eman», diote. «Beraz, administrazioa ez da bere legea betetzen ari».

Eragileek parke eolikoaren proiektuaren aurkako elkarretaratzea deitu dute Zelatunen, etzirako, hilak 17, 12:00etan.

# Landarbaso abesbatza eta XI. Biatloia, etzi

## ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Maiatza Saltsan egitarauaren baitan etzi bi ekitaldi izango dira. 10:00etan XI. Biatloia izango da jokoan San Millan elizaren inguruan. Bestetik Erretereria-Oreterako Landarbaso abesbatzak kontzertua emango du.

XI. Biatloian hiru maila izango dira. LH1 eta LH2koek elizari itzuli bat korrikari, hiru itzuli bizikletan eta itzuli bat korrikari eman behar dute. LH3 eta LH4koek korrikari bi itzuli, bizikletan bost itzuli eta korrikari bi itzuli egin beharko dituzte. LH5 eta LH6koek 500

metro korrikari, bi kilometro izikletan eta 500 metro korrikari egingo dituzte. Iaz bezala, beste laugarren maila ere izango da, gurasoak animatzen badira parte hartzera.

Landarbaso abesbatzak San Millan elizan 11:00etan egingo den mezan abestuko dute eta meza ondoren kontzertua emango dute. Abesbatza honetan billabonatar batzuk abesten dute eta laster Frantzian lehiaketa batean parte hartuko dute. Lehiaketa horretarako prestatu dituzten kantak abestuko dituzte.

# KOP eta Izate taldeen kontzertua frontoian

## ERREDAKZIOA

Anoetako Gaztetxearen 10. Urteurrenaren ospakizunen baitan, kontzertua izango dute gaur gauean herriko frontoian. KOP eta Izate taldeek joko dute eta kontzertua 23:00etan hasiko da.

KOP talde kataluniarra 1998an sortu zen eta hardcore-punk eta trash-metal musika jotzen dute. Euskal Herriarekin lotura berezia dute eta katalanez, euskaraz eta

gaztelaraz kantatu izan dituzte beraien abestiak. Kritika sozial eta politikoa egin ohi dute.

Izate 1999ko abenduan Donibane Lohitzune-Ziburuko gaztetxean sortutako rock musika taldea da. 2003ko ekainean hasi ziren kontzertuetan. 2005ean lehendabiziko maketa argitaraturik, lehenengo diskoa, simpleki *Diska* izendatua 2006ko irailan atera zuten. Bigarren diskoa atera berri dute.

## Laburrak

### Lore Amenabari omenaldia Kultur Astearen

**IRURA** • Irurako Kultur Astearen baitan, gaur 18:00etan Lore Amenabar soinu-joleari omenaldia egingo diote. Loatzo musika eskolako ikasleen emanaldia eta dantzarien emanaldia izango da plazan. Ondoren merienda egingo dute. 22:30ean taberna eta elkarrean arteko Mus Txapelketaren finalerdia eta finala jokatu dira Zaharretxe tabernan. Jarraian sari-banaketa egingo dute.

### Poltsikoko Antzerki Lehiaketaren kanporaketa

**ADUNA** • Asvineneak antolatzen duen III. Poltsikoko Antzerki Lehiaketaren laugarren kanporaketa izango da gaur, 22:30ean. Parte hartuko dute ACT-Il Personal obrarekin, Kuku Bazar *Maritxu* lanarekin, Irube *Bat, bi eta hiru obrarekin*, El Torrente de las Sorpresas *La caperucita roja* obrarekin eta Astrolabio *El acto poético* lanarekin. Artista gonbidatua ere izango da. Aurreko kanporaketan Estocolmo eta Teatraigo taldeek egin dute aurrera.

### III. Emakumea Pilotari Txapelketako jardunaldia

**IRURA** • Trinketeko III. Emakumea Pilotari txapelketako hirugarren jardunaldiko partidak jokatu dira gaur Iruran eta Donostian. Irurako Ametsa trinketean 21:30ean hasiko dira eta hiru partida jokatu dituzte. Lehenengo partida bigarren mailakoa izango da eta Goenaga-Zuazu eta Perez-Otxotoren ariko dira lehian. Bigarren partidari, lehen mailakoa, Arozena lizartzarra eta Etxegia, Etxabe-Unanue bikotearen aurka ariko dira. Hirugarren partidari, lehen mailakoa ere, Espinar-Fernandez eta Aburuza-Montes ariko dira.

### Gipuzkoako Eskolarteko Paleta Txapelketa

**PILOTA** • Bihar jokatu dute Gipuzkoako eskolarteko paleta txapelketako finalerdia Amasan eta Anoetan. Guztira bederatzita partida izango dira. Bi jaialdiak 15:30ean hasiko dira. Villabonako Ernioeba eskolarteko Amasan jokatu dute, Alegiok San Juan A eta Alitzoko Imaz Bertolaria eskolakoek Anoetan.

# Ekitaldi ugari asteburuan

## ERREDAKZIOA

Alkizako Kultur Astearen baitan ekitaldi ugari izango dira asteburu honetan. Gaurko San Isidro Eguna gain, bihar eta etzi ere izango da zer egin eta zer ikusi Alkizan. Bihar, besteak beste, Ernioko Kableari buruzko mahai inguruaz izango da. Bertan parte hartuko dute Antonio Arabaolaza y Cia enpresaren bi fundatzaileen bi seme-ariko dira, Joseba Arabaolaza eta Pello Joxe Aranburu alkizarra. Horiez gain, Ernioko Kablea errentan hartu zuen Jazinto Ira-

## » EGITARAUA

### Maiatzak 16, bihar

Egunean zehar txorimaloak plazan jarriko dituzte eta txondorra irekiko dute.

- **09:00.** Mendi ibilaldia Alkizako inguruetan.
- **16:00.** Aiztondoko kirol topaketak.
- **18:00.** Erakusketa eta filmak kultur etxean.
- **19:00.** Fronteris Txapelketako finalak.

zuren seme batek eta Ataungo Bixente Eskisabelekin lanean arituz Rezolak ere ariko dira.

Igandea Trontzaren Eguna izendatu dute eta Gipuzkoako Trontza eta Txingra Txapelketak izango dira jokoan, besteak beste. Trontzan Aitor Esnaola eta Igor Esnaola (Legorreta), Jokin Gar-

- **20:30.** Mahai inguruak kultur etxean Ernioko Kableari buruz.

### Maiatzak 17, etzi

- **10:00.** Meza.
- **11:30.** Alkizako haurren dantza emanaldia.
- **12:15.** Gipuzkoako Trontza eta Txingra Txapelketa egingo dituzte plazan.
- **14:00.** Bazkaria frontoian.
- **18:00.** Zozketa.

mendia-Unai Iraola (Baliarrain, Ikaztegieta), Juanjoxe Agirregabiria-Unai Salegi (Deba, Mendaro) eta Andoni Rezabal-Aitor Roteta (Aia, Alkiza) ariko dira. Txingra txapelketan Juanjoxe Agirregabiria (Deba), Garikoitz Alberdi, Jabi Urresti (Mutriku) eta Andoni Zubiaurre (Ordizia) ariko dira.

## Berastegin

**Zelai taberna  
ALOKATZEN DA**  
Deitu arratsaldez  
**606 742 408**





Txintxarri Txiki abesbatzakoak, Alegiako elizan kantatzen. HITZA

## Txintxarri Txikik Haur Koroen III. Tailerrean hartuko du parte

### ERREDAKZIOA

Alegiako Txintxarri Txiki abesbatzak haur koruen III. Tailerrean hartuko du parte. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatu du tailer hori; abesbatzetako gazteenekin koro musika lantzea izango da helburua. Txintxarri Txikik Gipuzkoako beste hainbat abesbatzarekin batera asteburu pasa egingo du bihar eta etzi Hon-

darribiako aterpetxean, hain zuzen ere.

Gorputz adierazpenari lotutako eskolak eta gomendioak jasoko dituzte haur kantariak. Horretan eskarmentu handia duten profesionalak izango dituzte, Juncal Guerrero eta Isabel Solano haur abesbatzetako zuzendariak, eta Nagore Orbeltzu gorputz adierazpenean aditua.

## Laburrak

### Intxurrekoek Ostadarren kontra jokatuko dute bihar

**ALEGIA** ● Intxurre futbol taldeak asteburu honetan Ostadar lidertza duen taldearen kontra jokatu beharko du, Alegian bertan, bigarren mailako lurraldekako mailan, hain zuzen ere. Norgehiagoka hau 15:30ean hasiko da bihar. Momentu honetan laugarren postuan dago 22 punturekin, Kostkas MB taldearen atzetik (30 puntu ditu). Azken asteburuan Axular Lugaritzen aurka aritu zen eta 2-0 galdu zuen. Beraz, gehienez ere laugarren postuan bukatuko dute alegiarrek, bi partida falta baitira Igoera Faseko liga bukatzeko.

### Ergoienako aparkalekua, erabiltzeko moduan

**AMEZKETA** ● Amezketako Udalak zera adierazi nahi izan die herritarrei: Ergoienan, Zumadi Eskolatik goraxeago, Sasturain tabernaren atzean dagoen aparkalekua erabili daitekeela, hain zuzen ere. Oraindik erabat bukatu gabe dago, zorian brea falta baitu, baina kotxeak bertan sartzeko moduan dago. «Eta ahalik eta gehien erabiltzea komeni da gainera. Horrela, eskola aurreko errepide gunea kotxerik gabe ikusiko dugu». Beraz, «Amezketako Udaletik ahalagin hori egiteko deia luzatzen diegu herritarrei».

### Udal bilerak astelehenean eta astezkenean

**AMEZKETA** ● Hirigintza-obretako batzordea eta kontuen batzorde berezia egingo dute Amezketan astelehenean. 20:30ean hasiko da bilera udaletxeko pleno aretoan. 2008ko Kontu Orokorrak. Besteen artean, irisgarritasun planaz ariko dira. Bestalde, Kultura, gizarte ongizate eta ingurumena batzordea aste honetan asteazkenean bilduko da 20:30ean. Kirola bultzatzeko plana, irisgarritasun plana, Festa batzordea eta udako ludoteka aztertuko dituzte.

### Autoestimari buruz, Nagore Vazquezekin

**ALTZO** ● Kutxaren Gizarte ekintza-aren laguntza, Altzoko udalak hilaren 20rako (asteazkena) hitzaldi bat antolatu du. Nagore Vazquezek ongizate pertsonalerako gomendioa: autoestima bideratuko du. 18:30ean izango da, udaletxean bertan. Beraz, bizitzan autoestimak duen garrantziaz hitz egingo dute eta berau handitzeko zenbait gomendio ere emango ditu Nagore Vazquez aditua. Helburuak hauek dira: nor bere burua onartzeko eta baloratzeko erremintak eskaintzea, nolako harreman estua duen autoestimak bizitzan gustura egotearekin eta abar. Entzuleen zalantzak argituko ditu ere.



Margolan batean baino gehiagotan kolore biziak erabili ditu zizurkildarrak. J. ALKORTA

## Juani Alkortaren paisaiak eta erretratoak ikusgai

**Alegia** ● Zizurkildarrak oraingoan kolore biziagoak erabili ditu; maiatza osoan zehar egongo dira, Jubilatuen tabernan.

eta itsasoetako paisaiak. Oraingoan koloreak biziagoak dira, eta gaia batez ere paisaia ezagunak eta girazikiak dira. Hilaren azken egunera arte izango dira Alegiako jubilatuen tabernan.

Paisaiak dira gehienak, eta esan bezala, asko ezagunak. Esaterako, Gaztelugatxe edota Haizearen orrazia. «zuzenean bertara joan beharrean, argazkia atera eta argazkiari begira margotzen ditut koadroak», dio Juani Alkortak. Pertsonen margolanen artean oso ezaguna den margolanaren kopia egin du: Daliren *Neskatila leihoan*.

### Margotu «lasaitzeko»

Zizurkilen ikasi izan du Alkortak, Olivia Sanchezekin. Aurreko erakusketa jarri zuenean, Juani Alkortak, besteak beste, «margotzeak lasaitasuna ematen duela» adierazi zuen. «Margotzeak lasaitu egiten nau. Askok uste dute ez direla gai margolan bat egiteko, baina kontua hastea da: pixkanaka gauzak ateratzen doaz eta nire usuez, probatu egin behar da». Horrez gain, «baten bat ez da ondo moldatuko oleoarekin agian, baina hori bakoitzak probatu egin behar du».

### NEREA URBIZU

Zizurkildar baten erakusketa dago Alegiko jubilatuen tabernan, Juani Alkortarena, alegia. Ez da bere lanak ikusgai Alegian jartzen dituen lehen aldia, baina gaiari dagokionez nahiko diferenteak dira: aurrekoan bodegoiak ziren nagusi,



Gaztelugatxe ezkerrean. Normalean argazkiari begira egiten ditu lanak. Eskuinean, Daliren 'Neskatila leihoan'. J. ALKORTA



HITZAK 2 harpidedunentzat **bina sarrera** ditu

Maiatzak 16 • Larunbata  
16:30ean  
Tolosako Beotibarren



sarrerak eskuratzeko deitu  
GAUR 12:00ak arte: **943-65 56 95**

hitza



sarrerak

**Apeztxea - Cabrerizo II**

**OLAZABAL // BEROIZ**  
(2. mailako Buruz buruko finalerdia)

**Capellan - Lasa III**  
Mikel Goñi - Eulate



Herriko jaietan eskaini izan dute San Joan dantza; biharkoa, hala ere, emanaldi berezia izango da. HITZA

## Donostian izango dira bihar San Joan dantzariak

**Berastegi** » 1935. ean joan ziren lehen aldiz San Joan dantza eskaintzera Donostiara, bihar izango da bigarren goaldia.

REBEKA CALVO

Berastegiko dantzariak hitzordu garrantzitsua dute bihar Donostian. 1935. urtean joan ziren azkeneko Gipuzkoako hiriburuan San Joan dantzaren emanaldia eskaintzera, eta beraz, bigarren goaldia «ilusio berezia» egiten dietela diote. «1935. urtean Euskal Festen barruan dantzatu zuten Donostiako Atotxan», argitu dute.

Donostiako Konstituzio enparantzan eskainiko dute dantza emanaldia 18:00etatik aurrera. Donostiako Txistulari Bandak urtero egiten duen erromeria izango

da biharkoa, baina aurtengoan Berastegiko San Joan dantzeekin hasiko dute emanaldia, «gonbidatuak izan gara», diote dantzariak. Jose Ignazio Ansorena txistulariak moldatu zituen Berastegiko San Joan dantzako partiturak eta bera eta bere taldea izango dira beraz, musika jarriko dutenak bihar Donostian.

### Orain 300 urteko dantza

Dantza taldeko kideek esan duteenez, San Joan dantzak «betidanik» egiten dituzte, «orain 300 urte baino gehiagotik ere dantza hauek egiten zirela baieztatzen duten datuak bildu ditugu», diote.

«Oso dantza berezia da, Gipuzkoan ez dago San Joan dantza bera egiten duten bi herri. Oso dantza pertsonala da, zortzi dantza daude San Joan dantzaren barruan eta oso berezia da», argitu dute.

Guztira 13 Berastegiko San Joan dantzari izango dira Konstituzio plazan; kapitaina eta 12 dantzari, eta mutil-dantza izaki, guztiak mutilak izango dira.

### 42 urte pasa ziren egin gabe

Azken urteetan San Joan dantza egiteko ohitura berreskuratu dute herrian, baina «42 urte ere pasa ziren egin gabe». Ondoren, 60. hamarkada inguruan Tolosako Uda-berri Dantza Taldeak dantza hau berreskuratzeko apustua egin eta orduan hasi zen berriz ere berrindartzen.

«Ondoren berastegitarak hasi ginen dantza ikasten eta 2000. urtean egin genuen dantza osoaren lehen emanaldia, zati batzuk 1999. urtean ere egin genituen, baina oso-osorik orain 9 urte egin genuen aspaldiko parte», argitu dute Berastegiko dantzariak.

## Gari Etxeberria espetxez aldatu dute

ERREDAKZIOA

Lizartzako Gari Etxeberria presoak espetxez aldatu zuten orain gutxi.

Pasa den hilaren 7an, espetxez aldatu zutenean, Pontevedrado (Galizia) A Lamako espetxean zegoen euskal presoak, Lizartzatik 742 kilometrora eta orain, aldiz,

Madrilera Aranjuezeko espetxera eraman dute, bere herriatik 506 kilometrora, hain zuzen ere.

Lizartzar gaztea 2007an atxilotu zuten Lapurdiko Azkainen etakide izatea leporatuta Asier Larriñaga bilbotarrarekin batera. Etxeberria Atxondan eta Zorno-

tzan aurkituriko lehergai gordelekuetan lotu zuten.

Atxilotu eta gero eskatu zuten Espainiko Auzitegi Nazionalak gaztearen kontrako euroagindua, nahiz eta prozedura hori ez den legezkoa Schengeneko akordioen baitan.

## Herriko greba komiteak ekitaldiak antolatu ditu Greba Orokorra dela-eta

**Ibarra** » Bihartik hasita kotxe karabana, prentsaurrekoa eta hitzaldi-egtabaidea antolatu dituzte.

ERREDAKZIOA

Ibarrako greba komiteak jakinarazi duenez, ekitaldi ugari antolatu ditu hilaren 21eko Greba Orokorren harira.

Horiek horrela, bihar, hilak 16, 10:30ean kotxe karabana egingo dute Ibarrako plazatik abiatuta. Ondoren, eskualdeko greba komiteekin bat egingo dute.

Maiatzaren 18an, astelehena, 19:00etan grebari atxikimendua emateko prentsaurrekoa eskainiko dute Subegi Elkarteak. Ondoren, 19:30ean hitzaldi-egtabaidea egingo dute. Hitzaldiak 3 zati labur

izango ditu: Autoeskola Antikapitalistako kide batek kapitalismoaren sorreratik gaur egunerainoko bilakaera azalduko du 15 minutuz; LABeko kide batek Euskal Herriko eta eskualdeko datu ekonomikoak eskeiniko ditu beste 15 minutuz; eta bukatzeko, ezker abertzaleko kide batek aurrera begirako hildo sozioekonomikoa azalduko du 10 minutuz.

Behin azalpenak amaituta, eztabaidarako tartea irekiko dute eta osteguneko Greba Orokorreko eta etorkizunerako «indarra eta perspektiba pilatzea izango dute helburu».

Bestalde, maiatzak 21eko Greba Orokorrean «aktiboki parte hartzea deitzen dugu, kapitalismoaren aurkako borrokan eta sozialismoaren aldeko erakuntzan, mugarrizango delako», argitu dute komiteko kideek.

## Dantzari Txiki Eguna izango da hilaren 23an

**Ibarra** » Goizean 300 haur inguruk egingo dute dantza eta arratsaldean Alurrekoen emanaldia izango da.

ERREDAKZIOA

Datorren larunbatean, hilak 23, Dantzari Txiki eta Alurr Eguna ospatuko dute Ibarren. Goizean dantzari txikiak ariko dira eta arratsaldean, aldiz, Alurr Dantza Eskolako emanaldia izango da. Ilunabarrean, gainera, erromeria izango da.

Aurtengoa hirugarren Dantzari Txiki Eguna izango da eta honekin gurasoek euren seme-alaben urteko lana ikusteko parada eskaini nahi dute antolatzaileek goizean zehar. Berastegi, Alto, Irura, Zizurkil, Anoeta, Bera eta Ibarrako

haurrak ariko dira, guztira 300 dantzari inguru.

Arratsaldean, aldiz, Alurr Dantza Eskolako dantzarien txanda izango da. Emanaldia Ibarrako plazan eskainiko dute eta guztira 7 talde eta mutilen taldea ariko dira. Guztira 200 bat dantzari izango dira eta Edu Muruamendiarazek erakutsitako koreografiak eta gazteek beraien prestatutakoak eskainiko dituzte.

Erromeria 19:30etik 21:00etara izango da eta Alurr taldearekin azken urteotan lan egin duten musikarietako hainbatek joko du erromerian. Alurr Dantza Taldeak herritar guztiak animatu eta gonbidatu nahi ditu erromerian parte hartzera, dantzatzera eta gozatzera.

Eguralditxarra egingo balu, Ibarako kiroldegiko frontoian izango dira ekitaldi guztiak.




## LIBURUA SALGAI

Salmenta:

Liburuaren prezioa:  
18 €

Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzako **bazkideak:**  
14 €



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Gurasoen eta haurren bazkaria ez da faltako Aresoko X. Topaketan. Janaria etxetik eraman behar da. JAIONE ASTIBIA

## Inguruko eskoletako haurrak eta gurasoak Areson topatuko dira bihar

**X. Topaketa** » Ekitaldiak 11:00etan hasi eta 18:30ak inguruan amaituko dira. Aresok, Goizuetak, Aranok eta Leitzak bat egingo dute.

**Aresoko hainbat lekutan**  
X. Topaketa lau herrietako Guraso Elkarteek eta Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuek antolatuta dute. Iaz Leitzan burutu zen ekimena

eta aurten Aresoko herria izango da protagonista.

Egitarau oparoa herriko leku ezberdinetan gorputzuko da, jai-giroan herrian barna zabalduz.

### » EGITARAUA

#### **Maiatzak 16, bihar**

- **11:00etatik 12:30era.** Jolasak herriko plazan.
- **12:30etik 13:00etara.** Leitzako Dantzari Txikiak plazan.
- **13:00etati 13:30era.** Leitzako Txistulariak eta Goizuetako Zagi Dantza herrian barna.
- **13:30etik 15:30era.** Bazkaria La-

rrea Elkartearen. Bokadiloa eman behar da.

■ **15:45etik 16:45era.** Eskolako umeen ekitaldiak Aresoko Eskolan.

■ **17:00etatik 17:45era.** Txokolate hartzea Pake-Toki Elkartearen.

■ **18:00etatik 18:30era.** Trikitilariak plazan.

#### ASIER IMAZ

Haur, Guraso eta Eskolen Arteko X. Topaketa egingo dute bihar Areson.

Ekitaldiak 11:00etan hasi eta 18:30ak inguruan amaituko dira. Bertan Leitzak, Arano, Goizuetak eta Aresoko haurrek eta gurasoek hartuko dute parte.

## Leitzako eta Aresoko pilotariak asteburuan sei erronka dituzte

**Pilota** » Oinatz Bengoetxeak etzi jokatu du Irujoren aurka. Mikel Olazabal Beroiz gaintzen saiatuko da bihar.

**Bengoetxea VI.ak etzi**  
Juan Martinez de Irujo eta Oinatz Bengoetxearen arteko partida hilaren 17an, etzi, jokatu da Donostiako Atano III.a pilotalekuan. Jaialdia 17:15ean hasiko da.

Material aukeraketan, atzo, leitzarrak 106,9 eta 106,3 gramoko pilotak bereiztu zituen: azpitik azker doazentariakoak eta bote gutxikoak. Irujok aldiz, 105,7 eta 104,9 gramokoak aukeratu zituen: bat bizia eta beste geldoagoa.

Aukeraketaren ondoren, Bengoetxea VI.ak partida gogorra izango dela aipatu zuen: «Ustekabean harrapatu nau Juanek nere pilota bat hartzeak. Berak normalean ateratzen dituen pilotak baino bajuagoa da. Ez dugu sekulan elkarren aurka jokatu baina soberan dakit nola jokatzeko duen. Partida

trinkoa izango da. Biok airezko jokuan ondo gabiltzanez, neurketa gogorra suertatuko da».

#### **Olazabal bihar Tolosan**

Mikel Olazabalek Beotibarren jokatu du Bigarren Mailako Txapelketaren baitan, Beroizen aurka. Aresoarria finalerdietan aurkitzen da. Partida bihar izango da 16:30ean.

#### **Nafarroako Harri Artekoa**

Lehen jardunaldian Uharteren aurka berdindu ostean, bigarrenen Arbizu edukiko du Leitzak aurrez aurre.

Lau mailatan lau partida jokatu ostean erabakiko da irabazlea. Oraingoan, Arbizu aurretik da, astelehenean Ander Eskudero-Jon Lezea bikoteak 10-18 galdu baitzuz-

## Webgunearen aurkezpenarekin hasiko da XXXI. Kultur Astea astelehenean

**Leitza** » Hilaren 31 bitarte harnaika ekitaldi burutu dira herri guztian zehar, XXXI. Artisau Azoka barne.

#### A. IMAZ

Hamabost eguneko XXXI. Kultur Astea hilaren 18an, astelehenean, hasiko da Leitzan. Ekitaldiak egun gehinetan egongo dira eta hauen artean azken eguneko XXXI. Artisau Azoka aipatu behar da. Hala eta guztiz ere hara iristeko eguneguz joan behar denez, lehen egunean [leitza.kultura.net](http://leitza.kultura.net) webgunea aurkeztuz hasiko dira leitzarrak.

#### » LEHEN EGUNETAKO EGITARAUA

#### **Maiatzak 18, astelehena**

■ **19:00etan.** Liburutegian, [leitza.kultura.net](http://leitza.kultura.net) webgunearen aurkezpena.

■ **20:00etan.** Aurreran Ade Sotilen hitzaldia: *Guatemalako bizipenak Gubernuz Kanpoko Erakunde batetik.*

#### **Maiatzak 19, asteartea**

■ **20:00etan.** Zinean Ander Letamendiaren hitzaldia: *Eskularien eskuetako gatatzak.*

#### **Maiatzak 20, asteazkena**

■ **20:00etan.** Aurreran hitzaldia: *Atondu liburuaaren aurkezpena eta Euskal Jantzien Atontze tailerra Ane Albisuren eskutik.*

## Laburrak

### **Greba Orokorren inguruko ekimena gaur**

**LEITZA** » LAB sindikatuak maiatzaren 21eko Greba Orokorren hari- bideo emanaldia eta hitzaldia antolatu ditu gaur Leitzako Aurre-Elkartean. *Greba zergatik...* goiburuean lehenik bideo bat ikusiko dute bertan biltzen direnek. Ondoren hitzaldiaren txanda izango da. Ekitaldia 20:00etan hasiko da.

### **Amaia Vazquezen azken hitzaldia gaur 15:00etan**

**ARESO** » Guraso Elkarteak, joan den urtean Amaia Vazquez sexu hezitzailearen eta sikologo klinikoaren eskutik antolatutako hitzaldien har- rera ona ikusita, ikasturte honetarako ere hitzaldiak antolatu ditu, Gizarte Zerbitzuaren laguntzarekin. Hasiara batean hitzaldiak Guraso Elkartearen lokalean egitea pentsatzen baldin bazuten ere, azkenean udal txenean egingo dituzte. Azken hitzaldia gaur eskainiko du Amaia Vazquezek, 15:00etatik aurrera, ordu eta erdiko iraupena- rekin.

### **Euskal Herriko Sokatira Txapelketa bihar**

**ARESO** » Herriko sokatira taldea bihar lehiatuko da 680 kilotan Azkoitia, Lur Gaingeko Euskal Herriko Sokatira Txapelketaren bigarren saioan. Lehen saioan hirugarren gelditu ziren aresoarrak. Pisu honetako azken tiraldiak hilaren 23an Endoiaigan (Gipuzkoa) izango dira. Kasu honetan gainera finala jokatu da. Ondoren Aresoko taldeak Txapelketan jarraituko du, baina 640 kilotan.

### **Sarriopapelen hilaren 21eko greba aurrera**

**LEITZA** » Sarriopapel enpresan he- renegun burutu ziren Langileen Batzarrak. Enpresa Batzordeak eta bertako bi sindikatu bakarrek, LABek eta ELAK, maiatzaren 21erako Greba Orokorrekin bat egin ostean, Langileen Batzarrak erabaki behar zuen grebarekin zer egin. Bozketa egin ostean baizkoa nagusitu zen.

### **Chi-Kung ikastaro praktikoa bihar 10:30ean**

**LEITZA** » Txinatar medikuntza tradizioaleko erlajazio, hazkuntza energetiko eta sanaziorako metodo nagusia da Chi-Kung. Praktikan hau zer den probatzeko aukera bikaina antolatu du Aurrera KEk eta Leitzako Kiroldegiak. Ikastaroa bihar, hilaren 16ean, izango da Kiroldegian, 10:30etik 12:30era. Irakasle bezala Patxi Mara egongo da. Izena eman nahi duenak kiroldegira joan edota 618 83 00 95 zenbakira deitu beharko du. Aurrerako bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek 15 euro.



13°  
8°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	14°
HOTZENA	7°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikotxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetaledea:** 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Emanaldiak

■ **Amezketza.** Poxpolo eta Mokolo pailazoan emanaldia, 17:30ean, plazako frontoian.  
■ **Tolosa.** Xabier San Sebastian, Bonberenean, 22:30ean.

### Kultur Asteak eta jaiak

■ **Berastegi.** San Isidro: 13:15ean San Isidoren irudia prozesioan eramango da herriko plazatik parrokia-eraino, ondoren meza nagusia, ondoren, Agirre jatetxean bazkaria. Iñaki Barriola, Maialen Etxeberria eta Izaro Saizar ariko dira soinu eta kantuz.  
■ **Berrobi.** XIX. Kultur Astea: 17:30ean eskolako ikasleen emanaldia ikastetxean. Jarraian Literatur Lehiaketako sari banaketa egingo dute.  
■ **Irura.** Kultur Astea: 18:00etan Lore Amenabarri omenaldia (Loatzo musika eskolako ikasleen emanaldia eta dantzariak plazan), ondoren merienda, 22:30ean taberna eta elkarten arteko Mus Txapelketaren finalerdiak eta finala Zaharretxe tabernan; jarraian, sari-banaketa.  
■ **Zizurkil.** San Isidro: 11:00etan meza, 12:00etan aizkolari eta hari-jasotzaileak eta 14:00etan bazkaria Plaza-Etxeberri jatetxean trikitilari eta bertsoariak.

### Zinema

■ **Tolosa.** Pedro Almodovarren *Los abrazos rotos*, Leidorren, 22:30ean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.  
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

### HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.



'Axun eta Maite' filmaren grabaketan parte hartu duten figuranteak, kabela kafetegia barruan. I. GARCIA

# Figuranteek ere bere lekua dute

**Asteasu** » 'Axun eta Maite' euskarazko filmaren grabaketa egiten izan ziren atzo goizean zehar Kabela kafetegian.

IMANOL GARCIA

Aste honetan hasi dira filmatzen *Axun eta Maite* euskarazko pelikula eta tartean Zizurkil eta Asteasun filmatu dute. Jon Garañoren eta Jose Mari Goenagaren lehenengo pelikula da eta egitasmoak 1,5 milioi euroko aurrekontu du. Zuzendariak azaldu dute-

nez, «nahi baino gehiago» ari zaie kostatzen lehenengo egunetan martxa hartzea. Hala ere, ilusioz eta gustura ari dira egiten grabaketa lanak.

Atzokoan Asteasuko Kabela kafetegian filmatu zuten eta bertan parte hartu zuten zenbait figuranteak, denak eskualdekoak. Luke Uribe-Etxebarria asteasuarrak izan da horietako bat eta sekuentzia batean parte hartu du. «Figurantei gertatzen zaigu gu osagarriak garelako. Beraz, planoaren eta kokapenaren arabera, adinaren arabera, emakumezkoak edo gizonezkoak behar dituzten... horren guztiaren

arabera aukeratzeko gaituzte sekuentzia baterako edo besterako». Uribe-Etxebarria gaineratzen duenez, «dibertitzera etorri gara eta baita euskarazko film batean parte hartu eta laguntzea». Ez da lehenengo aldian grabaketa batean parte hartzen duela. «Orain urte asko Bruselan lagun batek egin zuen film labur batean parte hartu nuen eta baita Lanbide telebistarako egindako iragarki batean ere parte hartu dut».

Txaro Otaegi asteasuarrak figurante bezala denbora luzeagoz egotea egokitu zaio. Lehenengo aldian da film baten grabaketan parte

hartzen duela. Bi sekuentzietan parte hartu du eta horietako batean bera izan da figurante bakarra. «Ona izan da esperientzia», dio Otaegi. «Ez nuen ikusi sekula ere grabaketa bat barrutik. Harrirtuta utzi nau, jende pila bat baitzegoen oso denbora gutxi iraungo duen zati bat grabatzeko».

Zizurkil ere egiten ari dira grabaketak. Iraola baserrian egiten ari dira eta bertan egun bat baino gehiagotan filmatu dute. Zuzendariak ziotenez, leku bakarti batean zegoelako aukeratu zuten Iraola baserria, «errepideko edo bestelako zaratarik ez izateko».

## A Agurrak



### Zorionak!

**Oneka Artola Zabala (Alegia).**  
Gaur 6 urte. Garazi, Galder eta etxekoan partetik.

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak